

Jacques Louis David (1748-1825. Iraultzak iraun zuen bitartean, aintzinakoaren izulera artistikoaren protagonista izan zen, bere zenbait mihise handietan errepublika erromatarraren dohainak nabarmendu zituelarik. Bonaparteren margolari izan zen eta Napoleonea beranduago, lehen kontsulari irudi tradizional eta dinamiko bat emanez, esku eskubia zerura altxatzen duen heroi baten irudia; ez jainkoarenganako menpekotasuna adieraziz, baizik eta boterearen egarri menperaezina erakutsiz. Hasiera batean Madrileko Errege-Jauregiko “Kapitain Handien Gela”n jarria, zaldi- margolan honek lehen kontsula tronu inperialera eramateko zuzendua dagoela dirudi. Bonaparte izenak, Hannibal eta Carlomagno izenen ondoan, Napoleon garai hartan oraindik enperadore ez zela gogorarazten digu.



Jacques –Louis David, Napoleón Bonaparte Alpeetako San Bernardo tontorraren zehar, 1200. La Malmaison Museoa © AKG . Paris

1829



Bi urte zituen mende honek...

**“Bi urte zituen mende honek! Espartak ordeztu Erroma,
Napoleon bultzaka ari Bonaparte baitan,
Eta anitz aldetarik, ordurako, Kontsularen mozorroa
Zartatzen zuen, estuegiz, Enperatorearen kopetak.
Garai hartan, Besançon-go herri espainiar zaharrear,
Hegan doan haizera jaurtitako bihia iduri,
Batera bretoia eta lorenatarra zen odoletik
Jaio zen haur ahotsik kolorerik behakorik gabeko bat,
Izan zitekeen ahulena, kimera baten antzekoa,
Denek abandonatua bere amak izan ezik,
Lepoa kanabera meheak bezala okertzen zuena
Aldi berean eskatzen zuela sehaska eta zerraldoa.
Bizitzak bere liburutik ezabatzen zuen haur hau,
Eta biharamun bat bizirik ez zeukana...
Neu naiz —”**

Honako hau Udazkeneko Hostoak obraren lehendabiziko poema da, 1830eko Uztaileko Iraultza baino egun batzuk lehenago idatzia, eta poetaren eta bere garaiko historiaren identifikazio autobiografikoa eskaintzen du. “Neu naiz” dioen poeta Kontsulatua eta Inperioaren artean jaio zen. 1802an Bonaparte lehen kontsula bitza osoko kontsul izendatua izan zen, eta bertutetsu zirudien espartano estiloko errepublika erromatar estiloko errepublikaz ordezkaturia izan zen. Hau ez da Hugoren errepublikanismo sentimentuaren hasiera besterik; denbora luzean zehar, Hugorentzat errepublika aukera politikoa baino gehiago, utopia izan zen.

«Bi urte zituen mende honek...», Udazkeneko hostoak, 1